Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Fernando Arte Ederretako Errege Akademiaren dirulaguntzari esker, konposioko eta orkestra-zuzendaritzako ikasketak sakondu zituen Frantzian eta Alemanian Paul Dukas, Le Flem eta W. Wolf maisuen zuzendaritzapean.

1945ean Bilboko Miserikordia Santuko musika-maisu eta Elkarte Koraleko zuzendari izendatu zuten.

1947an Donostiara etorri zen bizitzera eta bertako Udal Kontserbatorioko harmoniako eta konposizioko katedrak atera zituen. 1962an bertako zuzendari izendatu zuten 1981 arte.

Gero, 1983an erretiroa hartu zuen arte harmoniako eta konposizioko katedretan aritu zen.

Lan pedagogiko handia burutzeaz gainera, sakontasun handiz landu du musika-konposizioaren arloa.

Bere-bereak dituzten ezaugarri bereziak eta mundu osoan ezagututako musika-lan ugari idatzi ditu, euskal musikaren historiarako oso garrantzitsuak guztiak.

Bere musika-lanak hauek dira:

Musika religiosoa: Re-n idatzitako Meza, Salve Regina, Hiru motete , Benedictus, etab...

Kontzertuetarako musika: Harirako kontzertua, Amanecer, Preludioa eta Fuga, Euskal Kontzertua, Biolontxelorako Kontzertua, Illeta, Itziar, Aranzazu, Euskal Salmoa, Zigor (ópera), Gernika (opera), Joan Bautista (oratorio), etab...

*Nació en San Sebastián el 13 de agosto de 1913. Inició sus estudios musicales en la Academia Municipal y en el Conservatorio donostiarra, bajo la dirección de Beltrán Pagola.*

*Los estudios de composición los terminó en Madrid, teniendo como maestro a Conrado del Campo.*

*Con becas de la Diputación de Gipuzkoa y de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando perfeccionó la composición y la dirección orquestal en Francia y Alemania con los maestros Paul Dukas, Le Flem y W. Wolf.*

*En 1945 fue nombrado maestro de música de la Santa Misericordia y director de la Sociedad Coral, ambas de Bilbao.*

*En 1947 se instaló en San Sebastián, logrando este año la cátedra de armonía y composición del Conservatorio Municipal.*

*En 1962 fue nombrado director del mismo, cargo que ejerció hasta 1981, limitándose desde entonces a su cátedra de armonía y composición hasta 1983, año de su jubilación.*

*Su gran tarea pedagógica ha estado acompañada de una profunda entrega a la composición musical. Es autor de una importante lista de obras trascendentales en la historia de la música vasca, de características propias inconfundibles y aceptación universal.*

*Obras: Música religiosa: Misa en Re, Salve Regina, Tres motetes, Benedictus, etc...*

*Música de concierto: Cuarteto de arco, Amanecer, Preludio y Fuga, Concierto vasco, Concierto para violoncello, Illeta, Itziar, Aranzazu, Salmo vasco, Zigor (ópera), Gernika (ópera), Joan Bautista (oratorio), etc...*

# Juan Francés de Iribarren

1699ko martxoaren 24an Zangozan (Nafarroa) jaio zen eta Malagan hil zen 1767ko irailaren 2an. Juan Francés-en eta Agedaren semea zen. Bere jaioterrian hasi zen musika ikasten eta 14 urte zituenean Madrila abiatu zen. Aztertutako dokumentuen arabera, organoa jotzeko trebetasun handia lortu omen zuen bertan.

1717an, 18 urte bete eta gero, Salamancako Katedraleko organojole-postua eskuratu zuen eta bertan zela sortu zituen lehenengo partitura garrantzitsuak.

1732an, Malagako Katedraleko kapera-maisu izateko lehiaketan parte hartu zuen. Bigarrena geratu zen Manuel Martínez Delgadoren atzetik. Manuel Martínez Delgado 1733ko ekainean hil zen, bere prebendaz jabetu gabe eta Katedraleko Apaiz-batzak Juan Francés-i deitzea erabaki zuen. Ondoren, urte bereko irailaren 30ean apaiz egin zuten.

Urriaren 1ean Malagara joan zen Katedraleko kapera-maisuaren lanak betetzera.

1737an, Katedraleko Musika Artxiboa sortu zuen eta bertan utzi zituen ordu arte idatzi zituen partiturak. Horrek sinesgarritasun handiagoa eman zion bertako eliz gizonen artean.

1741ean, Valladolideko Katedraleko kapera-maisu izatea proposatu zioten. Soldata hobea eskaini zioten eta bere amari lagundu behar zionez, onartzeko onartzeko zorian izan zen baina Malagako Katedraleko Kapituluak 100 dukat gehiago ordaintzea erabaki zuen eta horregatik ez zen bertatik mugitu.

1760aren hamarkadan, gaisorik ibili zen eta hori zela medio, askotan ordezkatu behar izan zuten. Horregatik ez oso baldintza egokietan lan egin behar izan zuen, eseritako korua zuzendu behar izan zuen adibidez.

Miguel Querol-ek, 1964an Malagako Katedraleko Artxiboaren katalogoa burutu zuenak, Iribarrenek mila partitura baino gehiago idatzi zituela adierazi du, horien artean: 19 Meza, 20 Miserere, 18 Auhen-kantu, 15 Sekuentzia, 10 Bezpera-joku, 500 Kantata, Gabonkantak, etab...

Musika-lan polifonikoetan ez du oso gustoko polikoralitatea. Bere garaiko musika erlijiosoaren beherakadatik urrun egon nahi du. Tratatu-idazle zenbaiten ustez, Iribarren Andaluziako eskolako azken ordezkari handienetarikoa izateaz gainera, Espainiak musika arloan XVIII. mendean izan duen musikagilerik ospetsuenetarikoa da.

*Nació en Sangüesa (Navarra) el 24 de marzo de 1699 y falleció el 2 de setiembre de 1767 en Málaga. Era hijo de Juan Francés y Agueda. Iniciado musicalmente en su villa natal, a los 14 años se desplazó a Madrid, donde "adquirió gran habilidad para el órgano", según documentación.*

*En 1717, cumplidos los 18 años, consiguió la plaza de organista en la Catedral de Salamanca, prebenda en la que compuso sus primeras partituras de importancia.*

*En 1732 se presentó a oposiciones de maestro de capilla en la catedral de Málaga. La plaza fue concedida a Manuel Martínez Delgado, alcanzando Iribarren el segundo puesto.*

*Manuel Martínez Delgado falleció en junio de 1733, sin tomar posesión de su prebenda y el cabildo catedralicio optó por llamar a Juan Francés, que fue ordenado sacerdote en Salamanca el 30 de setiembre de este mismo año.*

*El 1 de octubre se trasladó a Málaga, para hacerse cargo de la plaza de maestro de capilla de su Catedral.*

*En 1737 se creó el Archivo Musical de la Catedral, al que Iribarren cedió sus partituras anteriormente compuestas, lo que aumentó su crédito en el cabildo.*

*En 1741 recibió la oferta de la plaza de maestro de capilla de la Catedral de Valladolid, mejor dotada económicamente. Dispuesto él a aceptarla, para poder atender a su madre, Agueda, el cabildo de Málaga aumentó en 100 ducados la renta de Iribarren y de esta manera lo retuvieron en su puesto.*

*En la década de 1760 su salud se resintió seriamente, lo que originó suplencias en su cargo o la obligación de trabajar en condiciones extrañas, como dirigir al coro sentado.*

*Miguel Querol, que en 1964 realizó el catálogo del Archivo de la Catedral de Málaga, señala que Iribarren compuso en su vida más de un millar de partituras, detallando entre ellas: Misas 19, Misereres 20, Lamentaciones 18, Secuencias 15, Juegos de Vísperas 10, Cantatas 500, Villancicos, etc. etc.*

*En sus obras polifónicas no se siente demasiado atraído por la policoralidad. Es evidente su deseo de sustraerse a la decadencia de la música religiosa en su tiempo. Algunos tratadistas ven en Iribarren a uno de los últimos grandes representantes de la escuela andaluza y a una de las principales figuras de la música española en el siglo XVIII.*

# Zuriñe F. Guerenabarrena

1965ean jaio zen Gasteizen eta bertako "Jesus Guridi" Musika Eskolan hasi zituen musika-ikasketak. Soinu-ikasketak burutu zituen Bartzelonako eta Donostiako Kontserbatorioetan. Harmoniako ikasketak burutu zituen C. Bernaola musikagilearekin eta gero, Kontrapuntoko eta Fugakoak J. Corderorekin Bilbon. Ondoren, Konposizioko ikasketak burutu ditu C. Bernaolarekin Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolan.

Beka bat eskuratu ondoren, ondoko leku hauetan burutu ditu konposizio-ikastaroak: Sevilla, Villafranca del Bierzo, Granada eta Darmstadt-eko "Internationale Ferenkurse Für Neue Musik".

Ondoko musikagile hauekin aritu da: J. Encinar, A. García Abril, C. Halffter, T. Marco, F. Guerrero, L. Brouwer...

Arabako Foru Diputazioak beka bat eman zion Milaneko "Scuola Civica"n bi urtero behin burutzen den ikastaroan parte hartzeko. Ondoko musikagile hauek izan ziren bere irakasleak: Franco Donatoni, A. Melchiorre, I. Fedele, G. Borio.

Milanen zela, S. Sciarrino, A. Corghi, N. Castiglioni, A. Clementi, D. Cohen, G. Manzoni, T. Murail eta Luis de Pablo musikagileek zuzendutako mintegietan parte hartu zuen. Bere musika-lanak ondoko jaialdi hauetan estrenatu dira: "Euskal Musika Berriaren Ihardunaldiak" (Donostia 1987-1990),"Oteizari eginiko Omenaldi-kontzertua" (Gasteiz 1989), MUSIKASTE (Errenteria 1990), XX. Mendeko Musikako I. eta II. Zikloa (Gasteiz 1994-1995), "VI Muestra de Música Electroacústica de Cuenca" (Cuenca 1994), "Encuentros Jóvenes Compositores" (MNCARS Madril 1995), "Musika Elektroakustikoko II. Ihardunaldiak" (Gasteiz 1996). CDMCek aukeratu du 1996ko Deialdian konposizio-egitasmoa burutu dezan.

*Nacida en Vitoria-Gasteiz en 1965, comienza sus estudios en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz. Realiza estudios de acordeón en los Conservatorios de Barcelona y San Sebastián.*

*Estudia Armonía con el compositor C. Bernaola, continúa los estudios de Contrapunto y Fuga con el compositor J. Cordero en Bilbao, para proseguir con los estudios de Composición con el compositor C. Bernaola en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz.*

*Asiste becada a varios cursos de composición en Sevilla, Villafranca del Bierzo, Granada y al "Internazionale Ferenkurse Für Neue Musik" en Darmstadt, impartidos por los compositores: J. Encinar, A. García Abril, C. Halffter, T. Marco, F. Guerrero, L. Brouwer...*

*Obtiene una beca de la Diputación Foral de Alava, para realizar el curso bienal de la "Scuola Civica" de Milán, asistiendo a las clases del compositor Franco Donatoni, A. Melchiorre, I. Fedele, G. Borio. Durante su estancia en Milán asiste a los seminarios impartidos por los compositores: S. Sciarrino, A. Corghi, N. Castiglioni, A. Clementi, D. Cohen, G. Manzoni, T. Murail y Luis de Pablo.*

*Sus obras han sido estrenadas dentro de las "Jornadas de Nueva Música Vasca" (Donostia 1987-1990), "Concierto Homenaje a Oteiza" (Gasteiz 1989), MUSIKASTE (Errenteria 1990), I y II Ciclo de Música del Siglo XX (Gasteiz 1994-1995), "VI Muestra de Música Electroacústica de Cuenca" (Cuenca 1994), "Encuentros Jóvenes Compositores" (MNCARS Madrid 1995), "II Jornadas de Música Electroacústica" (Gasteiz 1996). Ha sido seleccionada por el CDMC en la Convocatoria 96, para la realización de su proyecto compositivo.*

# Alfonso García de la Torre Rey

1964 an Gasteizen jaio zen eta hor "Jesus Guridi" Goi Mailako Musika Kontserbatorioan musika ikasketak hasi zituen. L. Rey, I. Lz. De Luzuriaga, A. Nieto y J. Gz. Alonsorekin piano ikasketak eta Carmelo Bernaolarekin harmonia eta konposizio ikasketak egin zituen.

Euskalerriko Unibertsitatean Ingenieritza Tekniko Industriala egin zuen.

Konposizio, Electronika eta Informatika Musikalari Buruzko ikastaroak egin ditu Cuencako Musika Elektroakustikarako Kabinetean, Bartzelonako "Phonos" Musika Elektroakustikarako Ikastetxean, Madrileko Musika Garaikidearen difusiorako Zentruko Informatika eta Elektronika Musikalaren Laborategian, Avignoneko "Centre Acanthes"en, Madrileko Unibertsitate Konplutensean, Valenciako "Tallers Internacionals d'Art i Comunicació"etan, eta Pariseko IRCAMen.

Dantza, Antzerkia, Zine eta Telebistarako produkzio batzuetan partaide izan da. Bere lanak XX. Mendeko musika jaialdietan entzuten dira. "Jesus Guridi" talde instrumentaleko kidea delarik, Musika Garaikidearen kontzertuak egin ditu, gaur egungo konpositoreen lanak estrenatu dituelarik. Gaur egun Gasteizko "Jesus Guridi" Goi Mailako Kontserbatorioko Musika Elektroakustikaren Laborategian irakasle da.

*Nacido en Vitoria-Gasteiz en 1964, comienza su formación musical en la Escuela de Música "Jesus Guridi" de su ciudad natal. Estudia piano con L. Rey, I. Lz. De Luzuriaga, A. Nieto y J. Gz. Alonso. Armonía y composición con Carmelo Bernaola.*

*Completa su formación académica con Ingeniería Técnica Industrial en la Universidad del País Vasco.*

*Asiste a cursos y seminarios de Composición, Electrónica e Informática Musical en el Gabinete de Música Electroacústica (Cuenca), Estudio de Música Electroacústica Phonos (Barcelona), Laboratorio de Informática y Electrónica Musical LIEM-CDMC (Madrid), Centre Acanthes (Avignon), Universidad Complutense (Madrid), Tallers Internacionals d'Art i Comunicació (Valencia), IRCAM (París).*

*Desde 1987 participa con el Grupo Instrumental Jesús Guridi en numerosos conciertos, estrenando obras de compositores contemporáneos.*

*Colabora en diversas producciones para danza, teatro, cine y video. Sus obras han sido interpretadas en ciclos y festivales de música del siglo XX.*

*Actualmente es profesor en el Laboratorio de Música Electroacústica del Conservatorio de Música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz, desde donde impulsa diferentes actividades relacionadas con la creación contemporánea.*

# Miguel Gónzalez Bastida

1920ko irailaren 26an Bergaran jaio zen , Ignacio eta Jesusaren semea. Bere aitarekin, Bergarako Udal Bandako zuzendaria eta organojolea zenarekin egin zituen musika-ikasketak pianoa eta flautina landuz.

Hamar urte zituenean, Musika Bandan sartu zen flautina jotzeko. Gero pianojole bikaina izan zen.

1937an Bergarako Bandako zuzendariorde izendatu zuten eta 1941az geroztik zuzendari eta Santa Marina Parrokiako organojole.

1948an flauta, piano, harmonia, konposizio, kontrapunto eta fugako ikasketak sakondu eta ofizial bihurtu zituen Donostiako Kontserbatorioan Luis Urteaga, Ramon Usandizaga eta Jose Maria Iraola maisuekin.

1971n Bergarako Orfeioaren zuzendari izan zen, Ramon Oiarzabali jarraituz. 17 urte eman zituen kargu horretan. Musika-ekoizpen zabala du, batez ere bandarako sortutakoa. Azpimarretzekoa da Estampas bergaresas musika-lana.

Era berean, txistu-talderako Tres marchas heráldicas, Argiak argitu dezan, etab... idatzi ditu. Erlijiozko musika-lan garrantzitsuak ere sortu ditu: 5 ahots eta organorako Euskal Meza, 4 ahots eta organorako Liberame, Domine, 6 ahots eta organorako Tota pulchra, 4 ahots eta organorako Ave Maria eta 4 ahots eta orkestrarako Stabat Mater. Azkeneko hau 1976an estrenatu zen bere zuzendaritzapean.

*Nació en Bergara el 26 de setiembre de 1920, hijo de Ignacio y Jesusa. Hizo sus estudios musicales con su padre, organista y director de la Banda Municipal de Bergara, cultivando el flautín y el piano.*

*A los diez años ingresó en la Banda, como flautín. Más tarde destacó como excelente pianista.*

*En 1937 fue nombrado subdirector de la Banda de Bergara, siendo director desde 1941, así como organista de la Parroquia de Santa Marina.*

*En 1948 amplió e hizo oficiales sus estudios de flauta, piano, armonía, composición, contrapunto y fuga en el Conservatorio de San Sebastián con Luis Urteaga, Ramón Usandizaga y José Mª Iraola.*

*En 1971 accedió a la dirección del Orfeón Bergarés, sucediendo en el cargo al mítico Ramón Oyarzabal. Se mantuvo al frente durante 17 años.*

*Su producción musical es muy extensa, especialmente para Banda. Particularmente populares son sus Estampas Bergaresas. También para conjunto de txistularis ha compuesto Tres marchas heráldicas, Argiak argitu dezan, etc.*

*Igualmente ha escrito importantes obras de música religiosa: Euskal Meza, 5 voces y órgano,*

*Liberame, Domine, 4 voces y órgano, Tota pulchra, 6 voces y órgano, Ave Maria, 4 voces y órgano,*

*Stabat Mater, 4 voces y orquesta, etc. Esta última obra se estrenó en 1976, dirigida por el propio autor.*

# Lorenzo Ondarra Quintana

1931n Bakaikun (Nafarroa) jaio zen. Altsasuko (Nafarroa) Apaizgaitegian burutu zituen lehen musika-ikasketak eta baita lekaide kaputxinokoak ere.

Era berean, gregoriar kantuko ikasketak egin ditu Madrileko Musika Sakratuko Goi Eskolan eta Montserraten, organo eta konposiziokoak Donostiako Kontserbatorioan Tomas Garbizurekin eta Francisco Escuderorekin eta beste hainbat ikasketa osagarri Sienako (Italia) eta Darmstadt-eko (Alemanian) uda ikastaroetan.

Erlijiozko musika liturgiko ugari, moteteak eta gabon-kantak sortzeaz gainera, abesbatzentzako 50en bat musika-lan profano, euskaldunak batez ere, idatzi ditu: Antonkeriak, Alkidantzan, Guziek ttun ttun, Txindorraren eriotza, Nerea izango zen, etab... Txisturako eta beste hainbat musika-tresnetarako musika: Nafarroako joku-dantzak, Sakandar (I-II), Aitziber, Txoriez, etab... Ganbara-musika: Giroaz, Laudes, Diálogos (Sari Nazionala 1969), etab... Pascua gregoriana, orkestra sinfonikoa, Suite Oi Betleem, ahots nahasietako koru eta orkestrarako, Salve Regina, 3 ahots zuri edo misto eta orkestrarako.

MUSIKASTE 99k estrenatuko dion Te Deum-a 1998an idatzi zuen Nafarroa, Cantabria eta Aragoiko Lurralde Kaputxinoaren Berrezarpenaren I. Mendeurrena oroitzeko.

*Nació en Bacaicoa (Navarra) en 1931. Hizo sus primeros estudios musicales, alternando con los de religioso capuchino en el Seminario de Alsasua (Navarra).*

*Su formación musical abarca además los estudios de canto gregoriano en la Escuela Superior de Música Sagrada de Madrid y Montserrat; órgano y composición en el Conservatorio de San Sebastián con Tomás Garbizu y Francisco Escudero; estudios complementarios en cursos de verano en Siena (Italia) y en Darmstadt (Alemania).*

*Es autor de una amplia lista de partituras de música religiosa litúrgica, motetes y villancicos;*

*unas 50 obras corales profanas, especialmente vascas: Antonkeriak, Alkidantzan, Guziek ttun ttun, Txindorraren eriotza, Nerea izango zen, etc.; música para txistu y otros instrumentos: Nafarroako jokudantzak, Sakandar (I-II), Aitziber, Txoriez, etc.; música de cámara: Giroaz, Laudes, Diálogos (Premio Nacional 1969), etc.; Pascua gregoriana, orquesta sinfónica, Suite Oi Betleem, para coro mixto y orquesta, Salve Regina, para 3 voces blancas o mixtas y orquesta.*

*El Te Deum, que le estrena MUSIKASTE 99, fue escrito por el autor en 1998, para conmemorar el I Centenario de la Restauración de la Provincia Capuchina de Navarra, Cantabria y Aragón.*

# Jesús María Sagarna

1944an Arrazuan (Bizkaia) jaio zen. Bilboko Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak, Madrilekoan sakondu eta Donostiakoan amaitu Francisco Escuderorekin.

OHOko irakaslea da Bergarako eskola batean. Bergaran bertan bizi da.

Eibarko Sostoa Korua zuzentzen du.

Musika-lanak: txistu, klarinete eta pianorako Usoa elurtzan, txistu bandarako Malkoen jolasak, Música Popular de Zamora (ahots nahasietarako 7 kanta), ahots nahasietarako Muxua irrian, Atsalde Morea, Udaberri hilotza, Erraguzu Maria, ahots zurietarako Ezkutaketan, Kulunkan magalean, etab...

*Nació en Arrazua (Bizkaia) en 1944. Comenzó sus estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao, los continuó en el de Madrid y los concluyó en el de San Sebastián con Francisco Escudero.*

*Es profesor de EGB en un colegio de Bergara, donde reside.*

*Dirige el Coro Sostoa de Eibar.*

*Obras: Usoa elurtzan, para txistu, clarinete y piano, Malkoen jolasak, para banda de txistu, Música Popular de Zamora (7 canciones para coro de voces mixtas), Muxua irrian, Atsalde Morea, Udaberri hilotza, Erraguzu Maria, para voces mixtas, Ezkutaketan, Kulunkan magalean, para voces blancas, etc.*

# Sabin Salaberri Urcelay

1934an Aramaioko Ibarran (Araba) jaio zen. Gasteizen burutu zituen pianoko, harmoniako eta konposizioko ikasketak Tomas Etxabarrirekin, Julio Valdesekin eta Francisco Escuderorekin, hurrenez hurren.

1960tik 1977ra Gasteizeko Apaizgaitegiko "Schola Cantorum"eko musika-arduraduna eta zuzendaria izan zen. 1968an Gizonezko Araba koruarekin aritu zen lankidetzan eta 1985 arte zuzendu zuen.

1975az geroztik Gasteizeko kontserbatorioko irakaslea da eta hamar urtetan zehar bertako ikasketaburua izateaz gainera, Zuzendari izan zen lau urtetan zehar.

*Nació en Ibarra de Aramaiona (Araba) en 1934. Estudió en Vitoria-Gasteiz piano con Tomás Echávarri armonía con Julio Valdés y después composición con Francisco Escudero.*

*Fue responsable de música y director de la "Schola Cantorum" del Seminario Diocesano de Vitoria desde 1960 hasta 1977. En 1968 colaboró en la fundación del Coro Araba, de voces graves, que dirigió hasta 1985.*

*Desde 1975 es profesor del Conservatorio de Vitoria, donde fue jefe de estudios durante diez años y director durante cuatro.*

# Gonzalo Tejada Villaverde

1960ko otsailaren 14an Donostian jaio zen. 15 urte zituela hasi zen gitarra jotzen. Pop eta rock-eko hainbat taldetatik igaro ondoren, Eiderjazz bikotea sortu zuen Ignacio Gonzálezekin.

Hainbat urtetan zehar estudioak eta moldaketak egiteaz gainera, pop, rock, folkeko taldeentzako eta iragarkietarako musika idatzi du, besteak beste.

1985ean kontrabaxua ikasi zuen bere kabuz eta Kursaal taldean sartu zen.

1990ean Tríptico Taldea sortu zuen eta bertako musikagilea eta liderra da. Urte berean Eusko Jaurlaritzak emandako Jazz Taldeetako Lehenengo Saria irabazi zuen. Berak idatzitako "Luna"k Musika-lanik Hoberenari dagokion saria irabazi zuen.

1992an G.T.Q. (Gonzalo Tejada Quartet) taldea sortu zuen eta 1993an Daniel Pérezekin bikotea osatu. Urte berean Bakarlari Hoberenari dagokion Saria eskuratu zuen Getxoko Jaialdian.

1995az geroztik kontzertu asko ematen ari da Euskal Herrian eta Frantziako Hegoaldean Iñaki Salvador pianojolearekin.

1997an "En tránsito" harizko orkestra eta kontrabaxu bakarlarirako musika-lana idatzi zuen eta 1998an "Et incarnatus" Ganbara Orkestrak estrenatu zuen Miguel Ceberioren zuzendaritzapean. Musika-lan honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du 1999an.

Beste hainbat musika-lan: Concierto para saxofón barítono, vibráfono y orquesta de cuerda; haize boskoterako Motivos; klabezin eta koru mistorako Concierto breve.

*Nació en San Sebastián el 14 de febrero de 1960. A los 15 años se inicia en el manejo de la guitarra. Tras pasar por grupos de pop y rock, formó el dúo Eiderjazz con Ignacio González.*

*Siguió varios años como músico de estudio, arreglista y compositor para grupos de pop, rock, folk, publicidad, etc.*

*En 1985 estudia contrabajo de forma autodidacta y se integra en el grupo Kursaal.*

*En 1990 crea el conjunto Tríptico, en el que figura como compositor y líder. En este año gana el Primer Premio de Grupos de Jazz, otorgado por el Gobierno Vasco. Su obra Luna recibe el premio a la Mejor Composición.*

*En 1992 crea G.T.Q.(Gonzalo Tejada Quartet) y en 1993 forma dúo con el guitarrista Daniel Pérez. Gonzalo Tejada alcanzó este año el Premio al mejor solista en el Festival de Getxo.*

*Desde 1995 viene desarrollando una intensa actividad en el País Vasco y Sur de Francia junto al pianista Iñaki Salvador.*

*En 1997 compone En tránsito para orquesta de cuerda y contrabajo solista, estrenada en 1998 por la orquesta de cámara Et incarnatus, dirigida por Miguel Ceberio.*

*Esta obra ha recibido en el año 1999 una ayuda del Gobierno Vasco.*

*Otras obras: Concierto para saxofón barítono, vibráfono y orquesta de cuerda; Motivos, para quinteto de viento; Concierto breve, para clavecín y coro mixto.*

# Félix Tellería Arrizabalaga

1899an Zegaman (Gipuzkoa) jaio zen eta bertan zendu zen 1965ean. Balbino eta Mª Nieves senar-emazteak izan zituzten bost seme-alaben arteko laugarrena zen. Musikan bereziki nabarmendu zena bigarrena izan zen, Juan.

1902an umezurtz geratu ziren eta Baldomero Telleria osaba eta apaizak hartu zituen eta musikan hezi. Felixek piano-ikasketak burutu zituen Donostian eta oso gazte zela hasi zen lanean dantzalekuetan.

1925ean argitaratutako bere pasodobleek, tangoek, schottisch-ek, sanbek eta beste hainbat musika-lanek ongi asko erakusten dute zein musika-girotan murgildu zen.

Oso gaisorik zegoela, Zegamara itzuli zen eta bertan bizi izan zen luzaroan bere anai-arrebak baino urte gehiagotan. Garai honetan sortu zituen Ave Maria eta "Irutxetako Ama Birjiñari" eta "Lierniko Andra Mariari" himnoak.

Bada, halaber, Eduardo Barrena Jaun ospetsuari eskainitako Gaztelako herri-kanten bilduma bat eskuz idatzia eta 1930ean Bordelen datatua.

*Nació en Zegama (Gipuzkoa) en 1899 y falleció en su villa natal en 1965.*

*Era el cuarto de los cinco hijos que tuvo el matrimonio de Balbino y Mª Nieves. De ellos se destacaría en la música el segundo, Juan. Habían quedado huérfanos en 1902 y fueron acogidos los cinco bajo la tutela del tío sacerdote Baldomero Tellería, que los educó a todos en la música.*

*Félix desarrolló en San Sebastián estudios mayores de pianista y se lanzó desde muy joven a una vida de profesional en salas de fiestas.*

*Obras suyas, pasodobles, tangos, schottisch, sambas, etc., editadas en 1925, reflejan el clima musical en que se movía.*

*Enfermado gravemente, regresó a Zegama y aquí residió con una vida más larga que la de sus hermanos. En esta época compuso un Ave Maria y los himnos "Irutxetako Ama Birjiñari" y "Lierniko Andra Mariari". Hay también constancia de una colección manuscrita de canciones populares castellanas, dedicadas al Ilustre don Eduardo Barrena y fechadas en Bordeaux en 1930.*

# Joseba Torre Alonso

1968an Bilbon jaio zen. Bertako "J. C. Arriaga" Kontserbatorioan eta "J. De Antxieta" Musika Ikastegian eta Madrileko Goi-mailako Errege Kontserbatorioan burutu zituen musika-ikasketak eta kalifikazio gorenak eta aparteko sariak irabazi.

Pariseko Goi-mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean sartu zen eta konposizioko eta orkestra-zuzendaritzako goi-mailako ikasketak burutu zituen. Aho batez eman zizkioten Karrera Amaierako Lehenengo Saria eta Hobekuntza Zikloa. Bide batez, Pariseko IRCAMen informatikako eta musika-elektronikako ikastaroak (Master) burutu zituen. Paris VIII.eko Unibertsitatean Musikologiako lizentziaduna da.

Pittsburg-eko Carnegie Unibertsitatean orkestra-zuzendaritzako Master bat egin du.

Ondoko irakasle hauekin egin du lan: L. Balada, A. Bancquart, J. S. Bureau, A. Blancafort, R. Castro, J. Cordero, E. A. Crespo, L. Cuniot, L. De Pablo. G. Grisey, B. Jolas, F. Koch, E. Nunes, P. Mefano, T. Murail, H. Vaggione.

Era berean, ikastaro askotan parte hartzeaz gain, ondoko irakasle hauek emandako Eskola Magistraletan izan da: L. Balada, F. Donatoni, B. Ferneyhough, C. Halffter, K. Huber, M. Lundberg, J. C. Risset, D. Jonson, besteak beste.

Ondoko nazioarteko jaialdi hauetan parte hartu du: Alacanteko Musika Jaialdian, Bilboko Musika Jaialdian, Errenteriako MUSIKASTEn, Donostiako Musika Hamabostaldian, Darmstadt-eko (Alemania) Udako Ikastaroetan, La Habanako (Cuba) Musika Jaialdian, Milan-en (Italia) buruturiko Musika espainiarraren hizkera berriak, Oportoko (Portugal) Musikako III. Jardunaldiak, Estrasburgoko (Frantzia) Musika Jaialdian, etab...

Erakunde askoren enkarguzko lanak jaso ditu, horien artean CDMC Musika Garaikidearen Hedapenerako Zentruak agindutakoak, INAEMenak, Kultur Ministerioarenak eta beste hainbat erakunde eta elkarte frantziarrek, alemaniarrek eta gehiagok agindu dizkiotenak.

Hitzaldi eta mahai-inguru askotan izan da Parisen, Milanen, Darmstadt-en, Madrilen, Donostian, Oviedon, Bilbon, etab...

Lehenengo Sari ugari irabazi ditu bertako eta nazioarteko lehiaketa askotan: 1992an "Pablo Sorozabal" Nazioarteko Lehiaketan, 1993an "Nadia Boulanger" Nazioarteko Lehiaketan, 1995ean Murtziako Orkestrarako Musikako Nazioarteko Lehiaketan, INAEMen Lehiaketan, 1995ean Pariseko Espainiako Ikasketxekoan, 1996an Bourges-eko (Frantzia) Musika Elektroakustikako Nazioarteko Lehiaketan Aipamen Berezia.

Bizkaiko Diputazioaren eta Kultur Ministerioaren bekak jaso ditu Parisen goi-mailako ikasketak burutu ahal izateko. 1996-97 ikasturterako Hezkuntza eta Kultur Ministerioak eta Fulbright Batzordeak beka bat eman diote Orkestra-zuzendaritzako Master bat Pittsburgeko (Pensylvannia-EEBB) Carnegie Mellon Unibertsitatean egiteko.

# Joseba Torre Alonso

*Nace en Bilbao en 1968. Cursa estudios musicales en el Conservatorio "J. C. De Arriaga" y en el Centro de Estudios Musicales "J. Antxieta" de su ciudad natal, así como en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid, obteniendo las más altas calificaciones y premios extraordinarios.*

*Continúa su formación en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París, donde realiza estudios superiores de composición y dirección de orquesta, obteniendo el Primer Premio de fin de carrera por unanimidad y Ciclo de Perfeccionamiento. Paralelamente realiza el Curso (Master) de informática y electrónica musical del IRCAM de París. Se licencia igualmente en Musicología por la universidad de París. Realiza un Master en dirección de orquesta en la universidad Carnegie Mellon de Pittsburg.*

*Ha trabajado con los profesores: L. Balada, A. Banequart, J. S. Bereau, A. Blancafort, R,. Castro, J. Cordero, E. A. Crespo, L. Cuniot, L. De Pablo, G. Grisey, B. Jolas, F. Koch, E. Nunes, P. Mefano, T. Murail, H. Vaggione.*

*Ha asistido a gran número de Cursos y Clases Magistrales impartidas por los maestros: L. Balada, F. Donatoni, B. Ferneyhough, C. Halffter, K. Huber, M. Lindberg, J. C. Risset, D. Jonson, entre otros. Ha participado en diversos festivales internacionales, como el Festival de Música de Alicante, Festival de Música de Bilbao, MUSIKASTE de Errenteria, Quincena Musical de San Sebastián, Cursos de Verano de Darmstadt (Alemania), Festival de Música de La Habana (Cuba), III Jornadas musicales de Oporto (Portugal), Festival de Música de Strasbourg (Francia), etc...*

*Recibe encargos del Centro para la Difusión de la Música Contemporánea (CDMC), del INAEM del Ministerio de Cultura, de diversas agrupaciones e instituciones francesas, alemanas...*

*Ha realizado conferencias y participado en mesas redondas en París, Milán y Darmstadt (Alemania), Madrid, San Sebastián, Oviedo, Bilbao, etc...*

*Obtiene Primeros Premios en concursos nacionales e internacionales de composición, como el Concurso Internacional "Pablo Sorozabal" 1992, Premio Internacional "Nadia Boulanger" 1993, Concurso de la SGAE 1994, Concurso Internacional de Música de Orquesta de Murcia 1995, Concurso Internacional de Música Electroacústica de Bourges (Francia) 1996.*

*Ha sido becado por la Excma. Diputación Foral de Bizkaia y el Ministerio de Cultura para realizar estudios superiores en París, así como por la Comisión Fulbright y el Ministerio de Educación y Cultura para realizar un Master (cursso 1996-1997) en Dirección de orquesta en la universidad Carnegie Mellon de Pittsburgh (Pennsylvania-USA).*

# Víctor Zubizarreta Arana

1899ko abenduaren 8an Bilbon jaio zen eta bertan hil 1970eko azaroaren 13an. Haurra zela solfeoa ikasi zuen Arandorekin eta pianoa A. Baldarekin, San Nikolas Parrokiako organojolearekin. 12 urte zituenean ordezkatu egin zuen organistian.

Musika-ikasketak Bizkaiko Akademian gauzatu zituen Jesus Guridirekin eta Jose Sainz Basaberekin Harmoniakoak eta Konposiziokoak.

Madrilen sakondu zituen ikasketak: Pianoa eta Organoa Bernardo de Gabiolarekin, Kontrapuntoa, Fuga eta Konposizioa Fontanillarekin. 1919an Harmoniako eta Konposizioko Lehenengo Saria irabazi zuen eta 1920an Organoko Lehenengo Saria.

Ondoren, Pariseko Schola Cantorum-era abiatu zen eta Vincent d´ Indy-ren ikaslea izan zen.

Euskal Herrira itzuli ondoren, organoko kontzertuak ematen hasi zen Donostian, Gasteizen, Valladoliden, Sevillan eta Zaragozan.

1926an Santa Cecilia Schola Cantorum-a sortu zuen eta kontzertu gogoangarriak eman zituen berarekin Toledoko, Madrileko, Burgoseko eta Salamancako katedraletan.

1937az geroztik Bilboko Begoñako Basilikako organojolea izan zen hogeita hamahiru urtetan zehar. Era berean Bilboko Konterbatorioko irakaslea eta zuzendaria izan zen. 1969an erretiratu zen musika arloan ikasle belaunaldi oso bat hezi ondoren eta omenaldi bikaina jaso zuen urte bereko martxoaren 6an.

Musika-lanak: 2 Meza, 12 Motete eukaristiko eta Ama Birjinari eskainiak, 4 Gabon kanta, hainbat eratako 15 kantu erlijioso, organorako 22 musika-lan.

Pianorako 9, ahots eta pianorako 6, biolin eta pianorako, txisturako 15, korurako 20 musika-lan, musika sinfonikoa: Fantasía vasca, Amanecer, Melania, Kardin.

*Nació en Bilbao el 8 de diciembre de 1899 y falleció en esta misma ciudad el 13 de noviembre de 1970. De niño estudió solfeo con Arando y piano con A. Baldar, organista de la Parroquia de San Nicolás, a quien sustituía en la organistía, cuando solo contaba 12 años.*

*Formalizó sus estudios musicales en la Academia Vizcaína con Jesús Guridi y José Sainz Basabe, Armonía y Composición.*

*Amplió estudios en Madrid: Piano y Órgano con Bernardo de Gabiola, Contrapunto, Fuga y Composición con Fontanilla, obteniendo en 1919 Primer Premio de Armonía y Composición y en 1920 el Primer Premio de Órgano.*

*A continuación se trasladó a la Schola Cantorum de París, donde recibió lecciones de Vicent d'Indy.*

*Reintegrado a su tierra, inició su carrera de concertista de órgano, actuando en San Sebastián, Vitoria, Valladolid, Sevilla y Zaragoza.*

*En 1926 fundó la Schola Cantorum Santa Cecilia, con la que realizó memorables giras por catedrales de Toledo, Madrid, Burgos y Salamanca.*

*Desde 1937 y durante treinta y tres años fue organista de la Basílica de Begoña en Bilbao.*

*Igualmente fue profesor y director del Conservatorio de Bilbao. Se jubiló en 1969, tras haber educado musicalmente a toda una generación de alumnos, siendo brillantemente homenajeado el 6 de marzo de este año.*

*Obras: Misas 2, Motetes eucarísticos y a la Virgen 12, Villancicos 4, Canciones religiosas varias 15, para órgano 22.*

*Para piano 9, voz y piano 6, Sonata para violín y piano, para txistu 15, obras corales 20, música sinfónica: Fantasía vasca, Amanecer, Melania, Kardin.*

# aurkibide kronologikoa

# índice cronológico


COMPOSITORES PÁGINA

1. Juan Francés de Iribarren (Sangüesa 1699-1767) .... 52
2. Adrien Barthe (Baiona 1828-1898) ............... 47
3. Felix Tellería (Zegama 1899-1965) ..................59
4. Víctor Zubizarreta (Bilbao 1899-1970) ............ 62
5. Francisco Escudero (Donostia 1913- ) ............. 51
6. Miguel González Bastida (Bergara 1920- ) .........55
7. Carmelo Bernaola (Otxandio 1929- ) ............. 48
8. Lorenzo Ondarra (Bakaikoa 1931- ) .............. 56
9. Sabin Salaberri (Aramaiona 1934- ) .............. 57
10. Jesús M. Sagarna (Arrazua 1944- ) ............. 57
11. Javier Busto (Hondarribia 1949- ) ............... 49
12. Pascal Gaigne (Francia 1958- ) .................. 46
13. Gonzalo Tejada (Donostia 1960- ) ...............58
14. Alfonso G. de la Torre (Vitoria 1964- ) ...........54
15. Zuriñe F. Guerenabarrena (Vitoria 1965- ) ..........53
16. Gabriel Erkoreka (Bilbao 1968- ) ................50
17. Joseba Torre (Bilbao 1968- ) ................ 60,61
18. Guillermo Lauzurika (Vitoria 1968- ) ............. 49
19. David Azurza (Tolosa 1969- ) ...................46





XXVII Semana musical en Errenteria

DEL 16 AL 22 DE MAYO DE 1999